

## KANALAK

Hasteko, erabaki dugu gure produktua gure merkatu segmentazioetara iristeko; hau da, gure komunikazio kanala, lehendabizi udaletxez-udaletxe eta komunitatez-komunitate joango garela gure produktua eskaintzen, aukera onena eta erabilgarriena iruditu zaigulako. Horrela, gure produktuaren existentziaz jabetuko dira gure bezeroak. Salmenta kanalei oinarrituta, zerbitzu hauei hasieran, kontenedore bat guztiz doan eta konpromezurik gabe probatzeko aukera emango diegu. Hori horrela, horrek dakartzan abantailak ikustean, eskaria handiagoa izango litzateke, hiriaren edo zonaldearen hondakinen trataera zeharo hobetuz. Banaketa hori ahalbidetzeko, banaketaz arduratuko den hirugarren enpresa batekin jarriko gara harremanetan, horrela gure produktua errazago zabalduko da eta bezeroek gure produktua zein balore duen ikusiko du. Horretaz aparte, azkarrago zabaltzeko, gure produktuaren inguruan orma irudi bat egingo dugu, kaletik txertatzeko.